



OSASUN SAILA

Osasun Sailburuordetza
Osasun Plangintzaeta
Antolamenduko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Planificación y
Ordenación Sanitaria

**2003. URTEKO MINBIZI
ERREGISTROAREN TXOSTENA**

**Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua
OSASUN PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO
ZUZENDARITZA
OSASUN SAILA**

-2008ko uztaila-

**OSASUN SAILA**

Osasun Sailburuordetza
Osasun Plangintzaeta
Antolamenduko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Planificación y
Ordenación Sanitaria

LABURPENA

2003. urtean zehar, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi ziren pertsonetan minbiziaren intzidentziari buruzko informazioa aurkezten da. Gainera, pertsona horien banaketa egiteko sexua, adina, kokapen anatomikoa eta lurralde historikoa kontuan hartu dira. Era berean, kokapen espezifikoean azken hamar urteetan intzidentziak izandako eboluzioa aztertu da.

Lehenengo aldiz 11.052 tumore gaizto diagnostikatu dira, 4.281 (% 38,7) emakumezkoetan eta 6.771 (% 61,3) gizonezkoetan. Hauxe da minbiziaren intzidentzia-tasa gordina: 100.000 biztanleko 532,2 kasu. Horietatik 403 emakumezkoek dagozkie eta 667 gizonezkoek.

Kolon-ondesteko minbizia da sarrien agertzen den tumore gaiztoen taldea, bi sexuak kontuan hartzen badira (% 13,9); eta maiztasun-ordenari jarraiki, bularreko tumoreak (% 10,9) eta biriketakoak (% 10,5) dira atzetik dituenak.

Hauxe da Europako biztanleriari doitutako minbiziaren intzidentzia-tasa: 388,6 100.000 biztanleko, 282,1 emakumezkoen kasuan eta 525,6 gizonezkoetan.

Azken hamar urteetan, kolon-ondesteko tumoreek urteko % 2,1eko gorakada izan dute, estatistikoki modu esanguratsuan gainera, bi sexuetan. Beste hauek ere gora egin dute: larruazaleko melanomak (% 5,59), linfomak (% 4,63) eta maskuria (% 1,58). Era berean, honako hauek estatistikoki esanguratsua den jaitziera izan dute: urdaileko tumore gaiztoak (urteko % 2,27), laringekoak (% 2,6) eta ezpaineakoak (% 1,7).

SARRERA

Aurreko kasuetan bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan minbiziak izan duen intzidentziari buruzko informazioa aurkeztuko da. Txosten honek dakarren informazioa, halaber, 2003. urteari buruzkoa da.

Euskadiko Minbizi Erregistroaren (EME) azken txostenetik (1) ez da aldatu datuak biltzeko prozedura, baina bai aldatu da tumoreen kokapenak eta morfologia kodetzeko erabilitako sailkapena, gure datuak beste erregistro batzuetakoekin bateratzeko.

2003. urteari dagokion intzidentziaren deskripzioa egiteaz gain, aukeratutako tumore batzuek azken hamarkadan izandako intzidentziasen eboluzioa aztertu da.

Jarraian, laburki gogoratuko dira, erabili diren eta prozedura-eskuliburuan (2) jasotzen diren definizio batzuk.

DEFINIZIO INTERESGARRIAK

Erregistratutako tumorea: EAEn lehenengo aldiz erregistratu eta erabilitako informazio-iturriren batean jasotako tumore oro.

Kasua: 1986. urtetik hona EAEn bizi den edozein pertsonari lehenengo aldiz diagnostikatutako tumore gaizto oro. Horiez gain, beste tumore hauek ere sartzen dira: "in situ" tumoreak, baita maskurian, obulutegian, nerbio-sistema zentrolean dauden zalantzazko gaiztotasuna duten tumoreak ere, eta kartzinoideak eta nerbio-sistema zentraleko tumore onberak. Larruazaleko tumore basozelularrak eta epidermoideak kanpoan geratzen dira.

Adina: diagnostikoa egin den momentuan pazienteak duen adina da.

Diagnostikoaren oinarria: diagnostikorako oinarriak hoberena baino ez da jasotzen.

Heriotza Ziurtagiria Bakarrik (HZB) kasuak: kasu hauetan heriotza-ziurtagirian izan ezik, bestelako iturrietan ez da informaziorik aurkitu.

MATERIALA ETA METODOA

Honako hauek izan dira informazio-iturriak: Osakidetzaren sareko ospitale publiko guztiak, Gipuzkoako Institutu Onkologikoa eta paziente onkologiko pribatuak diagnostikatu eta atenditzeko hainbat zentro.

Tumoreak, lehendabiziko aldiz, haien kokapen eta morfologiaren arabera Onkologiarako Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 3. bertsioarekin kodifikatu dira, hau da, "CIE-O v3" delakoa kontuan hartuta (3).

Analisia deskriptiboa da, eta maiztasunari eta intzidentziari erreferentzia egiten dion ororako honako hauek baino ez dira erabiliko: EAEn bizi direnetan lehenengo aldiz diagnostikatutako kasu erasotzaileak/tumore gaiztoak (M.../3, M.../6, M.../9).

Datuen kalitatea, *International Association of Cancer Registries* eta *International Agency of Research on Cancer* (IACR, IARC) (4) delakoek proposatutako ohiko adierazleen bitartez neurtzen da. Hona hemen adierazleetako batzuk: egiaztapen mikroskopikoa, adin ezezaguna, heriotza-ziurtagiritik baino ez datozen kasuak eta tumore primarioa ezezaguna duten kasuak, baita aparatu desberdinetan txarto definituta daudenak ere.

Sexu bakoitzean eta kokapen bakoitzerako EAEko tasa gordinak kalkulatzeko, EAEko biztanleria izendatzaile gisa erabiltzen da; eta

biztanleriari buruzko informazio hori, 1996ko erroldaren eta 2001eko zentsuaren estrapolazio lineala eginez lortu da, Euskal Estatistika Erakundea/EUSTATEk emandako datuen bitartez. Tasa estandarizatuak kalkulatzeko, berriz, beste hauek erabili dira: metodo zuzena eta Europako biztanleria estandarra (5).

EAEEn intzidentzia-tasak azken urteetan izan duen eboluzioa, Poisson-en erregresio-eredua (6) erabiliz kuantifikatu da. Eredu horri jarraiki, kasukopurua mendeko aldagaitzat hartu da; aldagai independentetzat, ostera, adina eta intzidentzia-urtea.

EMAITZAK

2003. urtean, 12.455 tumore lehenengo aldiz erregistratu dira. Gehienek, 11.947, euren egoitza EAEEn zuten eta gutxiago izan ziren haien egoitza Burgos (264), Kantabria (86) eta Nafarroa (55) bezalako probintzia mugakideak zituztenak. 60 tumoretan ez zen egoitzaren informazioaren berri izan.

EAEEn bizi zirenen artean lehenbiziko aldiz diagnostikatutako 11.947 tumoretatik, 652 tumore onberak izan ziren, 124 zalantzazkoak, 652 "in situ" tumoreak eta 11.052 tumore gaiztoak. Minbiziaren intzidentzia azken tumore horiei buruzkoa da.

Kalitate-adierazleak 1. taulan ageri dira. Adina ezezaguna izan zen 4 kasutan eta tumoreen egiaztapen mikroskopikoa (histologikoa eta zitologikoa) % 87,5ekoa izan zen. Kasuen % 3,3 heriotza-ziurtagiriaren bidez baino ez zen ezagutu eta tumore primarioa ezezaguna izan zen kasuen % 3,2an, zertxobait altuago emakumezkoentzat gizonezkoentzat baino.

Gizonezkoetan kasu-kopurua 6.771koa izan zen eta emakumezkoetan 4.281ekoa, arrazoia hauxe izanik: gizonezko/emakumezko 1,58. Kokapen bakoitzean eta sexu bakoitzean kasu-kopuruaren banaketa 2. taulan ageri da. Gizonezkoetan sarrien gertatu ziren tumoreak prostatakoak, biriketakoak eta kolon-ondesteko taldekoa izan ziren. Emakumezkoetan, ostera, bularrekoa, kolon-ondestekoa eta umetoki-gorputzekoa (3. taula). Jarraian, gizonezkoen kasuan maskuriko tumoreak ikus daitezke eta emakumezkoetan sistema hematopoietikoa eta erretikuloendotelialaren tumoreak.

Adin-taldeen araberako tasa espezifikoa 1. irudian ikus daiteke, non tumoreen maiztasunak gora egiten duen 50 urtetik aurrera. Gizonezkoek emakumezkoak gainditzen dituzte, 30 urtetik 49 urtera bitartean izan ezik.

Hauxe da minbiziaren intzidentzia-tasa gordina EAEn: 532,2 kasu/100.000 biztanle, 667,5 gizonezkoetan eta 403,1 emakumezkoetan. Bere banaketa kokapen bakoitzean eta sexu bakoitzean 4. taulan ageri da.

Hauxe izan zen EAEn, Europako biztanleriari doitutako intzidentzia-tasa: 100.000 biztanleko 388,6. Horietatik 525,6 gizonezkoek zegoen eta 282,1 emakumezkoek. Minbiziaren intzidentzia-tasa oso antzekoa da lurralde historiko bakoitzean gizonezkoen kasuan eta zertxobait altuagoa izan da Arabako emakumezkoetan (287,7) Gipuzkoa eta Bizkaikoekin alderatzen badugu, 2. irudian egiazta daitekeen moduan; eta hori zehatzago ikus daiteke 5a eta 5b tauletan, kokapen bakoitzari, sexuari eta lurralde historikoari buruzko informazio baitakarte. Bestalde, 2003. urtean azpimarra daiteke gizonezkoengan urdaileko (34,2) eta prostatako (145,3) minbiziaren intzidentzia handiagoa izan dela Araban, eta giltzurruneko eta tiroideko (18,8 eta 4,5, hurrenez hurren) minbiziaren intzidentzia Gipuzkoan, eta lurralde horretan sistema hematopoietikoko tumore gaiztoetan izandako intzidentzia baxuagoa (15,8) izan da. Emakumezkoetan hauxe da nabarmenena: intzidentzia-tasa handiagoa Araban kolon-

ondestean (38,7) eta Gipuzkoan sistema hematopoietikoa (22,2) eta biriketako minbizian (13,2).

Bizkaian, bi sexuetan, nabarmentzen da biriketako minbiziaren intzidentzia-altua (80,3), beste lurralde historikokekin konparatuta.

Sarrien eman den diagnostikoaren oinarria histologia izan zen (8.952 kasu). 124 kasutan proba biokimikoak edota immunologikoak erabili ziren, PSA delakoa barne; eta 807 kasutan (% 7,3), diagnostikoa klinikoa baino ez zen izan edo ikerkuntza klinikoren batekin egin zen. 35 autopsiatan tumore gaizto baten presentzia egiaztatu zen.

Diagnostikoa egin zen momentuan, tumorearen kokalekua zehaztuta zegoen kasu gehienetan gizonezkoetan (% 42) zein emakumezkoetan (% 37,9), sakabanatuta zegoen kasuen % 20tik gora eta tumorearen hedadura ezezaguna zen kasuen % 10etik gora (3. irudia). "In situ" tumoreak, berriz, emakumezkoetan (% 9,7) gizonezkoetan (% 2,7) baino sarriago gertatu ziren (3. irudia).

Morfologia gehienak adenokartzinomak (% 40) izan ziren. Talde histologiko handien deskripzio xehatuagoa 6. taulan ageri da.

7. taulan ikus daiteke, azken hamar urteetan intzidentzia-tasek kokapen espezifikoetan izandako eboluzioa.

Ezpaina, aho-barrunbea eta faringea (C00-C14)

Tumore-kokapen horiek, multzo anatomiko bat osatzen dutenak, oso hurbil aurkitzen dira bata besteengandik eta arrisku-faktore batzuk partekatzen dituzte, hala nola: tabakoa eta alkohola, besteak beste. Laringeko tumoreekin batera, klinikan horien aipamena egiterakoan "buru eta lepoko" tumoreak bezala izendatzen dira. Honako hauek dira kokapen ohikoenak:

ezpaina eta udare-formako altzogunea (% 0,6) gizonezkoetan eta mihiaren beste alderdi batzuk (% 0,4) emakumezkoetan.

Tumore gehienen morfologia kartzinoma epidermoideena da (% 92,5).

Azken hamar urteetan, tasek urteko % 1,7ko jaitsiera izan dute (KT -2,79, -0,62). Jaitsiera hori gizonezkoetan % 2koa izanik (KT -3,17, -0,89), emakumezkoetan baino handiagoa izan da, hauek % 0,61eko jaitsiera izan baitute (KT -3,58, 2,45)(4. irud.).

Digestio-aparatua (C15-C26)

EAEEn diagnostikatutako tumore gehienak digestio-aparatuko kokapenetan biltzen dira, gizonezkoetan (% 27,9) nahiz emakumezkoetan (% 27,3).

Kokapenik ohikoena kolona da (965 kasu, % 32,5), ondoren urdaila (555 kasu, % 18) eta urrutiago ondestea, gibela eta pankrea ageri dira. Tumore gehienen morfologia adenokartzinomarena (% 69) da.

Urdaileko tumorearen intzidentzia-tasak, urteko % 2,3ko beherakada (KT -3,18,-1,35) jasan du azken hamarkadan. Estatistikoki esanguratsua den beherakada hori, emakumezkoetan (% 2,59) gizonezkoetan (% 2,25) baino zertxobait handiagoa izan da (5. irud.).

Kolon, ondeste eta sigmoidearen juntura, ondestea eta uzkia (C18-C21) kokapenak taldekatu ohi dira baterako ikuspegia izateko asmotan, arrisku-faktore asko partekatzen dituztelako, baita diagnostikoaren eta tratamenduaren hurbilketa ere.

Azken hamar urteetan kolon-ondesteak izandako intzidentzia-tasaren eboluzioa ebaluatu da, eta estatistikoki esanguratsua den % 2,13ko (KT 1,53-2,74) urteko igoera gertatu dela ikusi da, gizonezkoetan (% 2,14) emakumezkoetan (% 1,81) baino handiagoa izan dena.

Arnas aparatua (C30-C39)

Arnas aparatuko tumoreen multzo honek, tumore gaizto guztien % 13,6 adierazten dute, gizonezkoetan % 18,8 eta emakumezkoetan % 5,4.

Laringeko tumoreak, gizonezkoetan, 8. postua hartzen du maiztasun-ordena kontuan hartzen bada, eta azken urteetan intzidentzia-tasak urteko % 3ko jaitsiera (KT -4,52,-1,49) izan du. Gehienak (% 98) kartzinoma epidermoideak dira (4. irud.).

Bronkioetan eta biriketan kokatutako tumoreak, minbizi-erregistroa sortu zenetik lehenengo postuan egon dira gizonezkoetan 1999. urtera arte; urte horretan 2. postura jaitsi zirelarik. Emakumezkoetan, berriz, 2003.

urtean 5. postuan egon dira. 2003. urtean izan duten maiztasuna 979 eta 184 kasutakoa izan da gizonezkoetan eta emakumezkoetan, hurrenez hurren.

Biriketako tumoreetan sarrien gertatu den morfologia-taldea neoplasia epiteliakala da (% 32), eta jarraian neoplasia ezkatadunak daude (% 24,8).

Azken hamarkadan, gizonezkoetan % 0,7ko urteko jaitsiera (KT -1,49, 0,07) gertatu dela hautematen da. Jaitsiera hori estatistikoki ez da esanguratsua, baina emakumezkoetan gertatutako % 4,58ko urteko igoera (KT 2,48, 6,72), hori bai bada estatistikoki esanguratsua (6. irud.).

Bularra (C50)

Emakumezkoetan hauxe da sarrien agertzen den tumorea, tumore gaizto guztien % 27,8, hain zuzen ere. Gizonezkoetan, ordea, arrarotzat har daiteke (% 0,2).

Kartzinoma duktal infiltratua, kokapen honetan sarrien agertzen den morfologia da (% 90).

50 urtetik 64 urtera arteko emakumezkoetan detekzio goiztiarra egiteko programa martxan jarri zenean, emakumezkoen intzidentzia-tasak azken urteetan, urteko % 0,27ko igoera izan du (KT -0,64, 1,18), igoera esanguratsua ez den arren (6. irud.).

Emakumezkoaren aparatu genitala (C51-C58)

Aparatu genitaleko tumore gaiztoek, emakumezkoetan gertatzen diren minbizi guztien % 12,5 irudikatzen dute, eta bere kokapen batzuk, ***umetoki-gorputza*** esaterako, sarrienen artean aurkitzen dira (% 5,8). Maiztasun-ordena kontuan hartuta, kokapen-multzo horren barruan ***obulutegia*** (% 3,1) eta ***umetoki-lepoa*** (% 2,1) ditugu. EAEn gauzatzen den diagnostiko goiztiar oportunistikoa dela-eta, azken kokapen horretan pilatzen dira "in situ" tumoreen kasu-kopuru garrantzitsu bat: 245 kasu 2003. urtean, hain justu.

Intzidentzia-tasen eboluzioan, azken urteetan urteko % 1,56ko igoera ikus daiteke (KT 0,09, 3,05) umetoki-gorputzean. Hala ere, urteko % 2ko jaitsiera izan dute obulutegian (KT -4,10, 0,14) eta umetoki-lepoan ere % 2,08ko jaitsiera gertatu da (KT -4,43, 0,33) (7. irud.).

Gizonezkoaren aparatu genitala (C60-C63)

2003. urtean gizonezkoen artean sarrien gertatu zen tumore gaiztoa **prostatakoa** izan zen, tumore guztien % 21,2, hain zuzen ere.

EAEEn PSA markagailua modu orokortu batean erabiltzeari ekin zitzaionetik, kasu-kopuruak gora egin du, beste herrialde batzuetan gertatu den bezala, modu adierazgarrian gainera (7). Morfologiarik ohikoena adenokartzinoma izan da (% 89,3). Horiek horrela, prostatako minbiziaren eboluzioak azken hamar urte hauetan, aztertutako kokapen guztien urteko % 10,47ko gehikuntza handiagoa eragin duela ikus daiteke (KT 8,80, 12,17) (8. irud.).

Gernu-aparatua (C64-C68)

Gernu-aparatuko tumore gaiztoek tumore guztien % 8 adierazten dute, eta sarriago gertatzen dira gizonezkoetan (% 10,5) emakumezkoetan (% 8,1) baino.

Kokapen ohikoena **maskurikoa** da eta bere morfologia nagusia zelula trantsizionalen kartzinomarena da (% 89).

Azken hamar urteetan, urteko % 1,58ko igoera esanguratsua izan du, zertxobait handiagoa emakumezkoentzat % 1,89rekin (KT -0,58, 4,43), estatistikoki esanguratsua ez den arren, gizonezkoen kasuan igoera % 1,23koa izan baita (KT 0,20, 2,26) (8. irud.).

Gongoil linfatikoak (C77)

Linfoma gehienak (% 61) gongoil linfatikoetan finkatzen dira, baina beste kokapen batzuetan ere egon daitezke, hala nola: digestio-aparatua, larruazala, garuna eta bestelako kokapenak. Hodgkin-en linfomak, linfoma guztien % 13 baino ez dute adierazten.

Azken hamarkadan, linfomak urteko % 4,63ko gehikuntza jasan dute (KT 3,24, 6,05), eta emakumezkoetan gehikuntza handiagoa izan da % 5,31rekin (KT 3,26, 7,40) gizonezkoen % 4,09rekin (KT 2,17, 6,03) alderatzen badugu (9. irud.).

Leuzemiak

Leuzemiak hezur-muinean (C 42.1) kokatzen dira, eta tumore gaiztoen zatirik handiena (% 46,4) osatzen dute; baina kokapen horretan sistema hematopoietikoen beste alterazio batzuk ere aurkitzen dira, hala nola: mielomak eta sistema erretikuloendotelialaren beste tumore batzuk. Saillkapen-aldaketak, batez ere kokapen horretako tumoreengan eragina izan du eta horri egotz dakioke, neurri handi batean, sistema hematopoietiko eta erretikuloendoteliala osatzen duten tumore-multzoan aurten erreparatutako igoera.

Leuzemiak gizonezkoetan (% 60) emakumezkoetan (% 40) baino sarriago gertatzen dira, eta motarik ohikoena linfoideena da.

Azken urteetan, urteko % 1eko jaitsiera (KT -2,44, 0,46) egon dela nabaritzen da; emakumezkoen urteko % 1,13 dagokie eta gizonezkoen urteko % 0,85 (9. irud.).

Larruazala, melanoma

Melanomak, gehienetan larruazalean kokatzen diren tumore gaiztoen mota morfologiko bat dira, beste kokapen batzuetan (begia, emakumezkoaren aparatu genitala, etab.) aurkitzen diren arren.

Bestalde eta EMEK tumore basozelular eta epidermoideei buruzko informaziorik ez dakarrela kontuan hartuta, melanomak mota histologiko gisa sarrien agertzen diren tumoreak dira (% 74,9).

10. irudian ikus daiteke, azken hamarkadan tumore horiek igoera esanguratsua izan dutela, urteko % 5,6ko igoera izan baitute (KT 3,45, 7,77), antzera bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan.

OHARRAK

2003. urtean zehar, hauxe izan da EMEn prozeduran izandako aldaketa garrantzitsu bakarra: tumoreak eta euren morfologia kodetzeko sailkapenaren aldaketa. Sailkapen berri horrek, funtsean, tumore hematologikoengan eta linfomengan du eragina, non agertu baitira gaur egun egiten den diagnostikoarekin bat datozen entitate berriak. Gainera, tumore batzuen portaera/morfologia aldatu egin da; beraz, lehen ez ziren erregistratzen zehaztugabeak zirelako (.../1) eta orain tumore gaizto bihurtu dira (.../3). Hori gertatu da, esaterako, umetoki-gorputzaren kasuan eta sistema hematopoietikoko batzuetan, eta hori dela eta, orain erregistratu egiten dira. Baina kontrakoa ere gertatu da, hau da, lehenago gaiztoak ziren kasuak, orain zehaztugabetzat hartzen dira eta aldaketa horrek, batez ere, obulutegian eragin du. Horri guztiorri lepora dakiok, neurri handi batean, aurten, batez ere kokapen batzuetan, gertatutako kasuen igoera eta jaitziera, eta kontuan hartu behar da beste urte batzuekin egiten den konparazioa hobeto interpretatu ahal izateko.

Kalitate-adierazleak ontzat har daitezke, diagnostikoa egin den momentuan haien hedadura "kokatuta" zutenen kasu-kopuruak gora egin baitu, baita pronostiko hobea aurreikus daitezkeen kopuruak ere.

Denboraren arabera intzidentzia-tasen eboluzioa aztertu egin da, euren joeragatik interesgarrienak zirela ziruditen kokapen espezifikoetan. Horien artean, Osasun Planean (8) begiesten direnak sartu dira.

Dagoeneko adierazten zen bezala, kolon-ondesteko minbiziak modu esanguratsuan gora egin du gizonezkoetan zein emakumezkoetan. Sexu bietan gora egin duten beste tumore gaiztoen artean ditugu: maskuria, linfomak eta melanomak. Emakumezkoetan, tabakoarekin zerikusia duten tumoreak (biriketakoa, laringekoa) eta umetoki-gorputzekoa izan dira gehitu direnak. Gizonezkoetan, berriz, biriketako eta laringeko tumoreek behera egin dute. Urdaileko minbiziaren intzidentziaren jaitsierak horretan jarraitzen du bi sexuetan. Gainera, emakumezkoetan zerbix eta obulutegiko minbizek behera egin dute.

Eskerrak eman nahi dizkiegu: Datuak eman dizkiguten informazio-iturri publiko eta pribatu guztiei eskainitako lankidetzagatik eta M.J. Esteban andreari, txosten honen argitalpenean emandako laguntzagatik.

Bibliografía

- 1.- Manual de procedimiento del Registro de Cáncer de Euskadi. Departamento de Sanidad. Dirección de Planificación y Ordenación Sanitaria. Abril de 2005
- 2.- Informe del Registro de Cáncer de Euskadi. www.osasun.ejgv.euskadi.net
- 3.- Clasificación Internacional de Enfermedades para Oncología, tercera edición. Ed.: Fritz A, Percy C, Jack A, Shanmugaratnam K, Sobón L, Parkin DM, Whelan S. Organización Mundial de la Salud, Washington 2003.
- 4.- International Agency for Research on Cancer. www.iarc.fr
- 5.- Dos Santos Silva I. Cancer Epidemiology: principles and methods. International Agency for Research on Cancer, Lyon, 1999.
- 6.- Frome EI, Checkoway H. Use of Poisson Regression models in estimating incidence rates and ratios. Am J Epidemiol, 1985, 121: 309-323
- 7.- Surveillance, epidemiology and end results program, 1975-2000. Division of cancer Control and Populations Sciences, NCI, 2003.
- 8.- Departamento de Sanidad. Políticas de salud para Euskadi: plan de salud 2002-2010. Vitoria-Gasteiz: servicio central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2002.

TAULAK

1. taula
KALITATE-ADIERAZLEAK (%)
EAE - 2003

| | GIZONAK | EMAKUMEAK | BI SEXUAK |
|-------------------------|----------------|------------------|------------------|
| Egiaztapen histologikoa | 81,39 | 80,24 | 80,94 |
| Egiaztapen zitologikoa | 6,92 | 6,47 | 6,56 |
| Adin ezezaguna | 0,06 | 0,05 | 0,05 |
| HZB* kasuak | 2,72 | 4,27 | 3,32 |
| Primario ezezaguna | 2,87 | 3,65 | 3,20 |
| Txarto definitutakoak | 0,75 | 0,84 | 0,79 |

* Heritoza Ziurtagiria Bakarrik

2. taula
KASU-KOPURUAREN BANAKETA, KOKAPENA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA
EAE - 2003

| Kokapena | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | BI SEXUAK | |
|----------------|---|--------------|-------------|--------------|-------------|--------------|-------------|
| | | K | % | K | % | K | % |
| C00-C14 | EZPAINA, AHO-BARRUNBEA ETA FARINGEA | 365 | 5,4 | 62 | 1,4 | 427 | 3,9 |
| 00 | Ezpaina | 41 | 0,6 | 5 | 0,1 | 46 | 0,4 |
| 01 | Mihiaren azpialdea | 26 | 0,4 | 3 | 0,1 | 29 | 0,3 |
| 02 | Bestelako eta zehaztugabeko mihi-zati batzuk | 33 | 0,5 | 15 | 0,4 | 48 | 0,4 |
| 03 | Hortzoiak | 8 | 0,1 | 4 | 0,1 | 12 | 0,1 |
| 04 | Aho-zorua | 37 | 0,5 | 0 | 0,0 | 37 | 0,3 |
| 05 | Ahosabaia | 16 | 0,2 | 4 | 0,1 | 20 | 0,2 |
| 06 | Bestelako eta zehaztugabeko aho-zati batzuk | 27 | 0,4 | 8 | 0,2 | 35 | 0,3 |
| 07 | Parotida guruina | 15 | 0,2 | 4 | 0,1 | 19 | 0,2 |
| 08 | Bestelako eta zehaztugabeko listu-guruin nagusiak | 3 | 0,0 | 1 | 0,0 | 4 | 0,0 |
| 09 | Amigdala | 18 | 0,3 | 3 | 0,1 | 21 | 0,2 |
| 10 | Orofaringea | 22 | 0,3 | 1 | 0,0 | 23 | 0,2 |
| 11 | Nasofaringea | 31 | 0,5 | 7 | 0,2 | 38 | 0,3 |
| 12 | Sinu piriformea | 44 | 0,6 | 2 | 0,0 | 46 | 0,4 |
| 13 | Hipofaringea | 16 | 0,2 | 0 | 0,0 | 16 | 0,1 |
| 14 | Bestelako eta gaizki definitutako ezpain, aho-barrunbe eta faring | 28 | 0,4 | 5 | 0,1 | 33 | 0,3 |
| C15-C26 | DIGESTIO-APARATUA | 1.892 | 27,9 | 1.171 | 27,4 | 3.063 | 27,7 |
| 15 | Hestegorria | 145 | 2,1 | 24 | 0,6 | 169 | 1,5 |
| 16 | Urdaila | 352 | 5,2 | 203 | 4,7 | 555 | 5,0 |
| 17 | Heste meharra | 17 | 0,3 | 14 | 0,3 | 31 | 0,3 |
| 18 | Kolona | 576 | 8,5 | 389 | 9,1 | 965 | 8,7 |
| 19 | Ondeste eta sigmoidearen juntura | 106 | 1,6 | 64 | 1,5 | 170 | 1,5 |
| 20 | Ondestea | 250 | 3,7 | 152 | 3,6 | 402 | 3,6 |
| 21 | Uzkia eta uzki-kanala | 4 | 0,1 | 6 | 0,1 | 10 | 0,1 |
| 22 | Gibela eta gibel-barneko behazun hodiak | 218 | 3,2 | 84 | 2,0 | 302 | 2,7 |
| 23 | Behazun-xixkua | 14 | 0,2 | 42 | 1,0 | 56 | 0,5 |
| 24 | Bestelako eta zehaztugabeko behazunbideko lekuak | 49 | 0,7 | 35 | 0,8 | 84 | 0,8 |
| 25 | Pankrea | 143 | 2,1 | 138 | 3,2 | 281 | 2,5 |
| 26 | Bestelako eta gaizki definitutako digestio-aparatuko lekuak | 18 | 0,3 | 20 | 0,5 | 38 | 0,3 |
| C30-C39 | ARNAS APARATUA | 1.274 | 18,8 | 230 | 5,4 | 1.504 | 13,6 |
| 30 | Sudur-barrunbea eta erdiko belarria | 5 | 0,1 | 6 | 0,1 | 11 | 0,1 |
| 31 | Sinu akzesorioak | 10 | 0,1 | 6 | 0,1 | 16 | 0,1 |
| 32 | Laringea | 242 | 3,6 | 14 | 0,3 | 256 | 2,3 |
| 33 | Zintzur-hestea | 1 | 0,0 | 1 | 0,0 | 2 | 0,0 |
| 34 | Bronkio eta birikak | 979 | 14,5 | 184 | 4,3 | 1.163 | 10,5 |
| 37 | Timoa | 5 | 0,1 | 3 | 0,1 | 8 | 0,1 |
| 38 | Bihotza, mediastinoa eta pleura | 32 | 0,5 | 16 | 0,4 | 48 | 0,4 |
| 39 | Arnas aparatuko bestelako eta gaizki definitutako lekuak | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| C40-C41 | HEZURRAK, ARTIKULAZIOAK ETA KARTILAGO ART. | 8 | 0,1 | 16 | 0,4 | 24 | 0,1 |
| 40 | Gorputz-adarretako hezurak, artik. eta kartilagoak | 4 | 0,1 | 9 | 0,2 | 13 | 0,1 |
| 41 | Best. eta zehaztugabeko leku batzuetako hez., artik. eta kart. | 4 | 0,1 | 7 | 0,2 | 11 | 0,1 |

| Kokapena | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | BI SEXUAK | |
|----------|--|---------|------|-----------|------|-----------|------|
| | | K | % | K | % | K | % |
| C42 | SIST. HEMATOPOIETIKO ETA ERRETIKULOENDOTELIALA | 273 | 4,0 | 235 | 5,5 | 508 | 4,6 |
| C44 | LARRUAZALA | 151 | 2,2 | 148 | 3,5 | 299 | 2,7 |
| C47 | NERBIO PERIFERIKOAK ETA NERBIO-SIST. AUTONOMOAK | 2 | 0,0 | 2 | 0,0 | 4 | 0,0 |
| C48 | PERITONEOA ETA PERITONEO-ATZEA | 12 | 0,2 | 11 | 0,3 | 23 | 0,2 |
| C49 | AZP.KO EHUN KONJUNT. ETA BEST. EHUN BIGUNAK | 44 | 0,6 | 32 | 0,7 | 76 | 0,7 |
| C50 | BULARRA | 15 | 0,2 | 1.191 | 27,8 | 1.206 | 10,9 |
| C51-C58 | EMAKUMEZKOAREN APARATU GENITALA | 0 | 0,0 | 537 | 12,5 | 537 | 4,9 |
| 51 | Bulba | | 0,0 | 25 | 0,6 | 25 | 0,2 |
| 52 | Bagina | | 0,0 | 12 | 0,3 | 12 | 0,1 |
| 53 | Umetoki-lepoa | | 0,0 | 91 | 2,1 | 91 | 0,8 |
| 54 | Umetoki-gorputza | | 0,0 | 249 | 5,8 | 249 | 2,3 |
| 55 | Umetokia & SAI | | 0,0 | 13 | 0,3 | 13 | 0,1 |
| 56 | Obulutegia | | 0,0 | 132 | 3,1 | 132 | 1,2 |
| 57 | Emakumezkoaren best.ko eta zehaztugabeko org. genit. batzuk | | 0,0 | 15 | 0,4 | 15 | 0,1 |
| 58 | Karena | | 0,0 | 0 | 0,0 | 0 | 0,0 |
| C60-C63 | GIZONEZKOAREN APARATU GENITALA | 1.514 | 22,4 | 0 | 0,0 | 1.514 | 13,7 |
| 60 | Zakila | 17 | 0,3 | | 0,0 | 17 | 0,2 |
| 61 | Guruin prostatikoa | 1.438 | 21,2 | | 0,0 | 1.438 | 13,0 |
| 62 | Barrabila | 56 | 0,8 | | 0,0 | 56 | 0,5 |
| 63 | Gizonezkoaren best.ko eta zehaztugabeko org. genital batzuk | 3 | 0,0 | | 0,0 | 3 | 0,0 |
| C64-C68 | GERNU-APARATUA | 711 | 10,5 | 189 | 4,4 | 900 | 8,1 |
| 64 | Giltzurruna | 181 | 2,7 | 88 | 2,1 | 269 | 2,4 |
| 65 | Giltzurrun-pelbisa | 16 | 0,2 | 7 | 0,2 | 23 | 0,2 |
| 66 | Ureterra | 12 | 0,2 | 1 | 0,0 | 13 | 0,1 |
| 67 | Gernu-maskuria | 493 | 7,3 | 90 | 2,1 | 583 | 5,3 |
| 68 | Bestelako eta zehaztugabeko gernu-org. batzuk | 9 | 0,1 | 3 | 0,1 | 12 | 0,1 |
| C69-C72 | BEGI, GARUN ETA NSZ-KO BESTE ZATI BATZUK | 138 | 2,0 | 94 | 2,2 | 232 | 2,1 |
| 69 | Begiak eta aldamenekoak | 7 | 0,1 | 10 | 0,2 | 17 | 0,2 |
| 70 | Meningeak | 1 | 0,0 | 3 | 0,1 | 4 | 0,0 |
| 71 | Garuna | 122 | 1,8 | 78 | 1,8 | 200 | 1,8 |
| 72 | Bizkarrezur-muina, nerb. kranialak eta NSZ-eko beste zati batzuk | 8 | 0,1 | 3 | 0,1 | 11 | 0,1 |
| C73-C75 | TIROIDEA ETA BESTE GURUIN ENDOKRINO BATZUK | 39 | 0,6 | 96 | 2,2 | 135 | 1,2 |
| 73 | Tiroide guruina | 33 | 0,5 | 92 | 2,1 | 125 | 1,1 |
| 74 | Giltzurrungaineko guruina | 5 | 0,1 | 3 | 0,1 | 8 | 0,1 |
| 75 | Bestelako guruin endokr. eta erlasionaturiko egiturak | 1 | 0,0 | 1 | 0,0 | 2 | 0,0 |
| C76 | GAIZKI DEFINITUTAKO BESTE LEKU BATZUK | 5 | 0,1 | 11 | 0,3 | 16 | 0,1 |
| C77 | GONGOIL LINFATIKOAK | 134 | 2,0 | 100 | 2,3 | 234 | 2,1 |
| C80 | LEKU PRIMARIO EZEZAGUNA | 194 | 2,9 | 156 | 3,6 | 350 | 3,2 |
| C00-C80 | KOKAPEN GUZTIAK | 6.771 | 100 | 4.281 | 100 | 11.052 | 100 |

3. taula
 KOKAPENIK OHIKOENAK, SEXUA KONTUAN HARTUTA
 EAE - 2003

GIZONAK

| % | |
|-------|----------------|
| 21,23 | PROSTATA |
| 14,47 | BIRIKA |
| 13,76 | KOLON-ONDESTEA |
| 7,28 | MASKURIA |
| 5,20 | URDAILA |

EMAKUMEAK

| | % |
|----|---------------------------------|
| 1. | BULARRA 27,83 |
| 2. | KOLON-ONDESTEA 14,10 |
| 3. | UMETOKI-GORPUTZA 5,82 |
| 4. | SISTEMA HEMATOPOIETIKOA 5,49 |
| 5. | URDAILA 4,74 |

4. taula
INTZIDENTZIA-TASAK, KOKAPENA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA
EAE - 2003

| Kokapena | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | BI SEXUAK | |
|----------------|---|---------|------|-----------|------|-----------|------|
| | | TG | EET | TG | EET | TG | EET |
| C00-C14 | EZPAINA, AHO-BARRUNBEA ETA FARINGEA | | | | | | |
| 00 | Ezpaina | 4,0 | 3,2 | 0,5 | 0,3 | 2,2 | 1,6 |
| 01 | Mihiaren azpialdea | 2,6 | 2,3 | 0,3 | 0,2 | 1,4 | 1,2 |
| 02 | Bestelako eta zehaztugabeko mihi-zati batzuk | 3,2 | 2,6 | 1,4 | 1,0 | 2,3 | 1,8 |
| 03 | Hortzoiak | 0,8 | 0,6 | 0,4 | 0,2 | 0,6 | 0,4 |
| 04 | Aho-zorua | 3,6 | 3,2 | 0,0 | 0,0 | 1,8 | 1,5 |
| 05 | Ahosabaia | 1,6 | 1,3 | 0,4 | 0,2 | 1,0 | 0,8 |
| 06 | Bestelako eta zehaztugabeko aho-zati batzuk | 2,7 | 2,9 | 0,7 | 0,5 | 1,7 | 1,3 |
| 07 | Parotida guruina | 1,5 | 1,2 | 0,4 | 0,3 | 0,9 | 0,7 |
| 08 | Bestelako eta zehaztugabeko listu-guruin nagusiak | 0,3 | 0,2 | 0,1 | 0,1 | 0,2 | 0,2 |
| 09 | Amigdala | 1,8 | 1,5 | 0,3 | 0,3 | 1,0 | 0,9 |
| 10 | Orofaringea | 2,2 | 1,9 | 0,1 | 0,1 | 1,1 | 1,0 |
| 11 | Nasofaringea | 3,1 | 2,8 | 0,7 | 0,5 | 1,8 | 1,6 |
| 12 | Sinu piriformea | 4,3 | 3,6 | 0,2 | 0,2 | 2,2 | 1,8 |
| 13 | Hipofaringea | 1,6 | 1,3 | 0,0 | 0,0 | 0,8 | 0,6 |
| 14 | Bestelako eta gaizki definitutako ezpain, aho-barrunbe eta faring | 2,8 | 2,5 | 0,5 | 0,4 | 1,6 | 1,4 |
| C15-C26 | DIGESTIO-APARATUA | | | | | | |
| 15 | Hestegorria | 14,3 | 11,9 | 2,3 | 1,4 | 8,1 | 6,3 |
| 16 | Urdaila | 34,7 | 26,8 | 19,1 | 11,0 | 26,7 | 18,1 |
| 17 | Heste meharra | 1,7 | 1,4 | 1,3 | 0,9 | 1,5 | 1,1 |
| 18 | Kolona | 56,9 | 43,0 | 36,6 | 21,4 | 46,5 | 30,9 |
| 19 | Ondeste eta sigmoidearen juntura | 10,4 | 7,9 | 6,0 | 3,7 | 8,2 | 5,5 |
| 20 | Ondestea | 24,6 | 19,3 | 14,3 | 9,3 | 19,4 | 13,7 |
| 21 | Uzkia eta uzki-kanala | 0,4 | 0,3 | 0,6 | 0,4 | 0,5 | 0,4 |
| 22 | Gibela eta gibel-barneko behazun hodiak | 21,5 | 16,1 | 7,9 | 4,4 | 14,5 | 9,7 |
| 23 | Behazun-xixkua | 1,4 | 1,0 | 3,9 | 2,1 | 2,7 | 1,6 |
| 24 | Bestelako eta zehaztugabeko behazunbideko lekuak | 4,8 | 3,7 | 3,3 | 1,7 | 4,0 | 2,6 |
| 25 | Pankrea | 14,1 | 11,4 | 13,0 | 7,8 | 13,5 | 9,5 |
| 26 | Bestelako eta gaizki definitutako digestio-aparatuko lekuak | 1,8 | 1,2 | 1,9 | 0,8 | 1,8 | 1,0 |
| C30-C39 | ARNAS APARATUA | | | | | | |
| 30 | Sudur-barrunbea eta erdiko belarria | 0,5 | 0,4 | 0,6 | 0,4 | 0,5 | 0,4 |
| 31 | Sinu akzesorioak | 1,0 | 0,7 | 0,6 | 0,4 | 0,8 | 0,5 |
| 32 | Laringea | 23,9 | 21,1 | 1,3 | 1,0 | 12,3 | 10,7 |
| 33 | Zintzur-hestea | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 0,1 |
| 34 | Bronkio eta birikak | 96,5 | 76,0 | 17,3 | 12,5 | 56,0 | 40,9 |
| 37 | Timoa | 0,5 | 0,4 | 0,3 | 0,2 | 0,4 | 0,3 |
| 38 | Bihotza, mediastinoa eta pleura | 3,1 | 2,8 | 1,5 | 1,4 | 2,3 | 2,0 |
| 39 | Arnas aparatuko bestelako eta gaizki definitutako lekuak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| C40-C41 | HEZURRAK, ARTIKULAZIOAK ETA KARTILAGO ART. | | | | | | |
| 40 | Gorputz-adarretako hezurak, artik. eta kartilagoak | 0,4 | 0,3 | 0,8 | 0,9 | 0,6 | 0,6 |
| 41 | Best. eta zehaztugabeko leku batzuetako hez., artik. eta kart. | 0,4 | 0,3 | 0,7 | 0,6 | 0,5 | 0,5 |

| Kokapena | | GIZONAK | | EMAKUMEAK | | BI SEXUAK | |
|----------------|--|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | | TG | EET | TG | EET | TG | EET |
| C42 | SIST. HEMATOPOIETIKO ETA ERRETIKULOENDOTELIALA | 26,9 | 21,5 | 22,1 | 14,7 | 24,5 | 17,6 |
| C44 | LARRUAZALA | 14,9 | 12,2 | 13,9 | 10,7 | 14,4 | 11,2 |
| C47 | NERBIO PERIFERIKOAK ETA NERBIO-SIST. AUTONOMOAK | 0,2 | 0,2 | 0,2 | 0,3 | 0,2 | 0,2 |
| C48 | PERITONEOA ETA PERITONEO-ATZEA | 1,2 | 0,9 | 1,0 | 0,8 | 1,1 | 0,8 |
| C49 | AZP.KO EHUN KONJUNT. ETA BEST. EHUN BIGUNAK | 4,3 | 3,6 | 3,0 | 2,1 | 3,7 | 2,8 |
| C50 | BULARRA | 1,5 | 1,1 | 112,1 | 89,0 | 58,1 | 47,0 |
| C51-C58 | EMAKUMEZKOAREN APARATU GENITALA | | | | | | |
| 51 | Bulba | | | 2,3 | 1,5 | 1,2 | 0,8 |
| 52 | Bagina | | | 1,1 | 0,6 | 0,6 | 0,3 |
| 53 | Umetoki-lepoa | | | 8,6 | 7,2 | 4,4 | 3,7 |
| 54 | Umetoki-gorputza | | | 23,4 | 17,7 | 12,0 | 9,4 |
| 55 | Umetokia & SAI | | | 1,2 | 0,8 | 0,6 | 0,4 |
| 56 | Obulutegia | | | 12,4 | 9,0 | 6,4 | 4,8 |
| 57 | Emakumezkoaren best.ko eta zehaztugabeko org. genit. batzuk | | | 1,4 | 0,8 | 0,7 | 0,5 |
| 58 | Karena | | | 0,0 | 0,0 | 0,1 | 0,0 |
| C60-C63 | GIZONEZKOAREN APARATU GENITALA | | | | | | |
| 60 | Zakila | 1,7 | 1,3 | | | 0,8 | 0,6 |
| 61 | Guruin prostatikoa | 141,7 | 106,7 | | | 69,2 | 47,2 |
| 62 | Barrabila | 5,5 | 4,7 | | | 2,7 | 2,4 |
| 63 | Gizonezkoaren best.ko eta zehaztugabeko org. genital batzuk | 0,3 | 0,2 | | | 0,1 | 0,1 |
| C64-C68 | GERNU-APARATUA | | | | | | |
| 64 | Giltzurruna | 17,8 | 14,0 | 8,3 | 5,6 | 12,9 | 9,5 |
| 65 | Giltzurrun-pelbisa | 1,6 | 1,2 | 0,7 | 0,3 | 1,1 | 0,7 |
| 66 | Ureterra | 1,2 | 0,9 | 0,1 | 0,0 | 0,6 | 0,4 |
| 67 | Gernu-maskuria | 48,6 | 37,7 | 8,5 | 4,5 | 28,1 | 19,2 |
| 68 | Bestelako eta zehaztugabeko gernu-org. batzuk | 0,9 | 0,7 | 0,3 | 0,2 | 0,6 | 0,4 |
| C69-C72 | BEGI, GARUN ETA NSZ-KO BESTE ZATI BATZUK | | | | | | |
| 69 | Begiak eta aldamenekoak | 0,7 | 0,6 | 0,9 | 0,6 | 0,8 | 0,6 |
| 70 | Meningeak | 0,1 | 0,1 | 0,3 | 0,1 | 0,2 | 0,1 |
| 71 | Garuna | 12,0 | 9,9 | 7,3 | 5,4 | 9,6 | 7,6 |
| 72 | Bizkarrezur-muina, nerb. kranialak eta NSZ-eko beste zati batzuk | 0,8 | 1,0 | 0,3 | 0,4 | 0,5 | 0,7 |
| C73-C75 | TIROIDEA ETA BESTE GURUIN ENDOKRINO BATZUK | | | | | | |
| 73 | Tiroide guruina | 3,2 | 2,7 | 8,7 | 8,0 | 6,0 | 5,3 |
| 74 | Giltzurrun-gaineko guruina | 0,5 | 0,5 | 0,3 | 0,2 | 0,4 | 0,3 |
| 75 | Bestelako guruin endokr. eta erlasionaturiko egiturak | 0,1 | 0,1 | 0,1 | 0,0 | 0,1 | 0,1 |
| C76 | GAIZKI DEFINITUTAKO BESTE LEKU BATZUK | 0,5 | 0,5 | 1,0 | 0,5 | 0,8 | 0,6 |
| C77 | GONGOIL LINFATIKOAK | 13,2 | 10,9 | 9,4 | 6,6 | 11,3 | 8,7 |
| C80 | LEKU PRIMARIO EZEZAGUNA | 19,1 | 15,2 | 14,7 | 7,6 | 16,8 | 11,1 |
| C00-C80 | KOKAPEN GUZTIAK | 667,5 | 525,6 | 403,1 | 282,1 | 532,2 | 388,6 |

TG: Tasa gordina x 100.000 biztanle

EET: Europako biztanleriarekin estandarizatutako tasa x 100.000 biztanle

5a taula
**ITZIDENTZIA-TASAK, KOKAPENA ETA LURRALDE HISTORIKOA KONTUAN HARTU
 GIZONEZKOAK EAE - 2003**

| Kokapena | | ARABA | | GIPUZKOA | | BIZKAIA | |
|----------------|---|-------|------|----------|------|---------|------|
| | | TG | EET | TG | EET | TG | EET |
| C00-C14 | EZPAINA, AHO-BARRUNBEA ETA FARINGEA | | | | | | |
| 00 | Ezpaina | 4,9 | 4,1 | 3,3 | 2,7 | 4,2 | 3,3 |
| 01 | Mihiaren azpialdea | 0,7 | 0,7 | 0,6 | 0,4 | 4,2 | 3,9 |
| 02 | Bestelako eta zehaztugabeko mihi-zati batzuk | 1,4 | 1,2 | 4,2 | 3,3 | 3,1 | 2,6 |
| 03 | Hortzoiak | 0,7 | 0,6 | 1,2 | 0,8 | 0,5 | 0,5 |
| 04 | Aho-zorua | 2,8 | 2,4 | 3,0 | 2,8 | 4,2 | 3,7 |
| 05 | Ahosabaia | 0,7 | 0,5 | 1,2 | 1,1 | 2,0 | 1,7 |
| 06 | Bestelako eta zehaztugabeko aho-zati batzuk | 1,4 | 1,1 | 3,9 | 3,3 | 2,2 | 1,8 |
| 07 | Parotida guruina | 2,1 | 1,7 | 1,5 | 1,1 | 1,3 | 1,2 |
| 08 | Bestelako eta zehaztugabeko listu-guruin nagusiak | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,2 | 0,4 | 0,3 |
| 09 | Amigdala | 0,7 | 0,6 | 1,8 | 1,5 | 2,0 | 1,8 |
| 10 | Orofaringea | 0,0 | 0,0 | 2,4 | 2,3 | 2,6 | 2,2 |
| 11 | Nasofaringea | 2,1 | 1,8 | 2,7 | 2,5 | 3,5 | 3,2 |
| 12 | Sinu piriformea | 5,6 | 4,6 | 4,2 | 3,6 | 4,1 | 3,5 |
| 13 | Hipofaringea | 0,7 | 0,6 | 1,8 | 1,6 | 1,7 | 1,4 |
| 14 | Bestelako eta gaizki definitutako ezpain, aho-barrunbe eta faring | 0,7 | 0,6 | 3,0 | 2,7 | 3,1 | 3,0 |
| C15-C26 | DIGESTIO-APARATUA | | | | | | |
| 15 | Hestegorria | 10,5 | 8,7 | 14,2 | 11,6 | 15,3 | 12,9 |
| 16 | Urdaila | 43,4 | 34,2 | 35,5 | 27,4 | 32,0 | 24,8 |
| 17 | Heste meharra | 1,4 | 1,0 | 1,8 | 1,6 | 1,7 | 1,4 |
| 18 | Kolona | 39,9 | 32,6 | 57,3 | 44,1 | 60,9 | 44,9 |
| 19 | Ondeste eta sigmoidearen juntura | 11,2 | 8,9 | 9,4 | 7,3 | 10,9 | 8,2 |
| 20 | Ondestea | 20,3 | 17,4 | 26,1 | 20,5 | 24,9 | 19,0 |
| 21 | Uzkia eta uzki-kanala | 0,7 | 0,6 | 0,3 | 0,2 | 0,4 | 0,3 |
| 22 | Gibela eta gibel-barneko behazun hodiak | 23,1 | 18,9 | 20,9 | 15,6 | 21,4 | 15,7 |
| 23 | Behazun-xixkua | 1,4 | 1,1 | 1,2 | 0,7 | 1,5 | 1,1 |
| 24 | Bestelako eta zehaztugabeko behazunbideko lekuak | 2,8 | 3,0 | 3,3 | 2,8 | 6,3 | 4,4 |
| 25 | Pankrea | 18,2 | 15,3 | 10,9 | 9,2 | 15,0 | 11,7 |
| 26 | Bestelako eta gaizki definitutako digestio-aparatuko lekuak | 4,9 | 3,7 | 1,5 | 1,0 | 1,1 | 0,8 |
| C30-C39 | ARNAS APARATUA | | | | | | |
| 30 | Sudur-barrunbea eta erdiko belarria | 0,7 | 0,7 | 0,6 | 0,5 | 0,4 | 0,3 |
| 31 | Sinu akzesorioak | 2,1 | 1,5 | 0,6 | 0,5 | 0,9 | 0,7 |
| 32 | Laringea | 16,8 | 15,2 | 25,5 | 22,9 | 24,7 | 21,5 |
| 33 | Zintzur-hestea | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,1 |
| 34 | Bronkio eta birikak | 81,8 | 67,0 | 92,1 | 73,1 | 103,0 | 80,3 |
| 37 | Timoa | 0,7 | 0,7 | 0,0 | 0,0 | 0,7 | 0,6 |
| 38 | Bihotza, mediastinoa eta pleura | 4,2 | 4,6 | 1,2 | 1,1 | 4,1 | 3,3 |
| 39 | Arnas aparatuko bestelako eta gaizki definitutako lekuak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| C40-C41 | HEZURRAK, ARTIKULAZIOAK ETA KARTILAGO ART. | | | | | | |
| 40 | Gorputz-adarretako hezurak, artik. eta kartilagoak | 0,7 | 0,6 | 0,3 | 0,2 | 0,4 | 0,3 |
| 41 | Best. eta zehaztugabeko leku batzuetako hez., artik. eta kart. | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,5 | 0,4 |

| Kokapena | | ARABA | | GIPUZKOA | | BIZKAIA | |
|----------------|--|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | | TG | EET | TG | EET | TG | EET |
| C42 | SIST. HEMATOPOIETIKO ETA ERRETIKULOENDOTELIALA | 28,0 | 25,7 | 19,7 | 15,8 | 31,0 | 23,9 |
| C44 | LARRUAZALA | 16,1 | 13,4 | 15,1 | 12,7 | 14,4 | 11,6 |
| C47 | NERBIO PERIFERIKOAK ETA NERBIO-SIST. AUTONOMOA | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,2 | 0,2 | 0,1 |
| C48 | PERITONEOA ETA PERITONEO-ATZEA | 0,0 | 0,0 | 1,2 | 0,9 | 1,5 | 1,1 |
| C49 | AZP.KO EHUN KONJUNT. ETA BEST. EHUN BIGUNAK | 4,9 | 4,5 | 4,5 | 3,7 | 4,1 | 3,3 |
| C50 | BULARRA | 1,4 | 1,1 | 1,8 | 1,4 | 1,3 | 1,0 |
| C60-C63 | GIZONEZKOAREN APARATU GENITALA | | | | | | |
| 60 | Zakila | 2,8 | 2,1 | 1,8 | 1,4 | 1,3 | 0,9 |
| 61 | Guruin prostatikoa | 180,5 | 145,3 | 147,6 | 111,6 | 128,1 | 94,4 |
| 62 | Barrabila | 4,9 | 3,8 | 5,1 | 4,5 | 5,9 | 5,2 |
| 63 | Gizonezkoaren best.ko eta zehaztugabeko org. genital batzuk | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,5 | 0,4 |
| C64-C68 | GERNU-APARATUA | | | | | | |
| 64 | Giltzurruna | 11,9 | 9,7 | 23,3 | 18,8 | 16,1 | 12,2 |
| 65 | Giltzurrun-pelbisa | 3,5 | 3,0 | 0,6 | 0,4 | 1,7 | 1,2 |
| 66 | Ureterra | 0,0 | 0,0 | 0,9 | 0,7 | 1,7 | 1,3 |
| 67 | Gernu-maskuria | 45,5 | 36,9 | 45,2 | 35,8 | 51,5 | 39,1 |
| 68 | Bestelako eta zehaztugabeko gernu-org. batzuk | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,2 | 1,5 | 1,3 |
| C69-C72 | BEGI, GARUN ETA NSZ-KO BESTE ZATI BATZUK | | | | | | |
| 69 | Begiak eta aldamenekoak | 0,7 | 0,5 | 0,9 | 0,8 | 0,5 | 0,4 |
| 70 | Meningeak | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,2 | 0,0 | 0,0 |
| 71 | Garuna | 4,9 | 4,3 | 13,9 | 11,9 | 12,7 | 10,2 |
| 72 | Bizkarrezur-muina, nerb. kranialak eta NSZ-eko beste zati batzuk | 1,4 | 1,9 | 0,9 | 1,1 | 0,5 | 0,6 |
| C73-C75 | TIROIDEA ETA BESTE GURUIN ENDOKRINO BATZUK | | | | | | |
| 73 | Tiroide guruina | 2,8 | 2,2 | 5,5 | 4,5 | 2,0 | 1,8 |
| 74 | Giltzurrun-gaineko guruina | 0,0 | 0,0 | 0,9 | 0,7 | 0,4 | 0,5 |
| 75 | Bestelako guruin endokr. eta erlazonaturiko egiturak | 0,7 | 0,6 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| C76 | GAIZKI DEFINITUTAKO BESTE LEKU BATZUK | 0,7 | 0,6 | 0,6 | 0,8 | 0,4 | 0,3 |
| C77 | GONGOIL LINFATIKOAK | 9,1 | 7,1 | 16,4 | 14,3 | 12,4 | 10,0 |
| C80 | LEKU PRIMARIO EZEZAGUNA | 11,2 | 9,2 | 17,6 | 14,6 | 22,2 | 17,0 |
| C00-C80 | KOKAPEN GUZTIAK | 640,0 | 528,3 | 663,1 | 528,2 | 677,4 | 524,6 |

TG: Tasa gordina x 100.000 biztanle

EET: Europako biztanleriarekin estandarizatutako tasa x 100.000 biztanle

5b taula
INTZIDENTZIA-TASAK, KOKAPENA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA
EMAKUMEZKOAK EAE - 2003

| Kokapena | | ARABA | | GIPUZKOA | | BIZKAIA | |
|----------------|---|-------|------|----------|------|---------|------|
| | | TG | EET | TG | EET | TG | EET |
| C00-C14 | EZPAINA, AHO-BARRUNBEA ETA FARINGEA | | | | | | |
| 00 | Ezpaina | 1,4 | 0,9 | 0,3 | 0,2 | 0,3 | 0,3 |
| 01 | Mihiaren azpialdea | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,1 | 0,3 | 0,2 |
| 02 | Bestelako eta zehaztugabeko mihi-zati batzuk | 0,7 | 0,3 | 2,3 | 2,0 | 1,0 | 0,6 |
| 03 | Hortzoiak | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,5 | 0,2 |
| 04 | Aho-zorua | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| 05 | Ahosabaia | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,5 | 0,2 |
| 06 | Bestelako eta zehaztugabeko aho-zati batzuk | 0,7 | 0,3 | 0,9 | 0,5 | 0,7 | 0,5 |
| 07 | Parotida guruina | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,5 | 0,3 |
| 08 | Bestelako eta zehaztugabeko listu-guruin nagusiak | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,0 | 0,0 |
| 09 | Amigdala | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,3 | 0,4 |
| 10 | Orofaringea | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,3 | 0,0 | 0,0 |
| 11 | Nasofaringea | 0,7 | 0,6 | 0,9 | 0,8 | 0,5 | 0,3 |
| 12 | Sinu piriformea | 0,7 | 0,7 | 0,3 | 0,2 | 0,0 | 0,0 |
| 13 | Hipofaringea | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| 14 | Bestelako eta gaizki definitutako ezpain, aho-barrunbe eta faring | 0,0 | 0,0 | 0,6 | 0,5 | 0,5 | 0,5 |
| C15-C26 | DIGESTIO-APARATUA | | | | | | |
| 15 | Hestegorria | 2,7 | 1,4 | 2,9 | 1,9 | 1,7 | 1,1 |
| 16 | Urdaila | 18,6 | 11,1 | 19,0 | 10,8 | 19,3 | 11,1 |
| 17 | Heste meharra | 2,1 | 2,0 | 0,9 | 0,7 | 1,4 | 0,8 |
| 18 | Kolona | 35,8 | 25,3 | 36,5 | 21,3 | 36,9 | 20,6 |
| 19 | Ondeste eta sigmoidearen juntura | 6,2 | 4,0 | 3,2 | 1,8 | 7,7 | 4,8 |
| 20 | Ondestea | 13,8 | 9,0 | 14,3 | 10,2 | 14,5 | 8,9 |
| 21 | Uzkia eta uzki-kanala | 0,7 | 0,4 | 0,6 | 0,4 | 0,5 | 0,4 |
| 22 | Gibela eta gibel-barneko behazun hodiak | 8,9 | 6,0 | 6,4 | 3,8 | 8,5 | 4,4 |
| 23 | Behazun-xixkua | 5,5 | 2,8 | 3,8 | 2,1 | 3,7 | 2,0 |
| 24 | Bestelako eta zehaztugabeko behazunbideko lekuak | 2,1 | 0,8 | 4,4 | 2,1 | 3,0 | 1,6 |
| 25 | Pankrea | 13,8 | 7,9 | 12,0 | 7,1 | 13,4 | 8,1 |
| 26 | Bestelako eta gaizki definitutako digestio-aparatuko lekuak | 1,4 | 0,5 | 2,0 | 0,8 | 1,9 | 0,8 |
| C30-C39 | ARNAS APARATUA | | | | | | |
| 30 | Sudur-barrunbea eta erdiko belarria | 0,7 | 0,5 | 0,9 | 0,6 | 0,3 | 0,3 |
| 31 | Sinu akzesorioak | 0,0 | 0,0 | 1,5 | 1,1 | 0,2 | 0,1 |
| 32 | Laringea | 2,1 | 1,4 | 1,2 | 1,0 | 1,2 | 1,0 |
| 33 | Zintzur-hestea | 0,7 | 0,6 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| 34 | Bronkio eta birikak | 13,8 | 10,1 | 18,7 | 13,2 | 17,4 | 12,7 |
| 37 | Timoa | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,2 | 0,3 | 0,2 |
| 38 | Bihotza, mediastinoa eta pleura | 1,4 | 1,5 | 1,5 | 1,4 | 1,6 | 1,4 |
| 39 | Arnas aparatuko bestelako eta gaizki definitutako lekuak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| C40-C41 | HEZURRAK, ARTIKULAZIOAK ETA KARTILAGO ART. | | | | | | |
| 40 | Gorputz-adarretako hezurrak, artik. eta kartilagoak | 1,4 | 1,8 | 1,2 | 1,3 | 0,5 | 0,4 |
| 41 | Best. eta zehaztugabeko leku batzuetako hez., artik. eta kart. | 0,7 | 0,7 | 0,6 | 0,4 | 0,7 | 0,7 |

| Kokapena | | ARABA | | GIPUZKOA | | BIZKAIA | |
|----------------|--|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | | TG | EET | TG | EET | TG | EET |
| C42 | SIST. HEMATOPOIETIKO ETA ERRETIKULOENDOTELIALA | 30,1 | 22,2 | 20,4 | 13,7 | 21,1 | 13,5 |
| C44 | LARRUAZALA | 13,1 | 9,8 | 16,9 | 13,3 | 12,4 | 9,4 |
| C47 | NERBIO PERIFERIKOAK ETA NERBIO-SIST. AUTONOMOAK | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,5 |
| C48 | PERITONEOA ETA PERITONEO-ATZEA | 0,0 | 0,0 | 1,7 | 1,1 | 0,9 | 0,7 |
| C49 | AZP.KO EHUN KONJUNT. ETA BEST. EHUN BIGUNAK | 2,7 | 1,7 | 3,2 | 2,5 | 3,0 | 1,9 |
| C50 | BULARRA | 107,3 | 88,5 | 113,0 | 88,6 | 112,9 | 89,5 |
| C51-C58 | EMAKUMEZKOAREN APARATU GENITALA | | | | | | |
| 51 | Bulba | 2,1 | 1,8 | 3,5 | 2,1 | 1,7 | 1,0 |
| 52 | Bagina | 2,1 | 1,4 | 0,6 | 0,2 | 1,2 | 0,6 |
| 53 | Umetoki-lepoa | 8,3 | 6,7 | 6,7 | 5,8 | 9,7 | 8,3 |
| 54 | Umetoki-gorputza | 22,0 | 17,9 | 21,0 | 15,6 | 25,2 | 18,8 |
| 55 | Umetokia & SAI | 1,4 | 1,1 | 0,9 | 0,3 | 1,4 | 1,1 |
| 56 | Obulutegia | 7,6 | 6,9 | 13,7 | 9,4 | 12,9 | 9,2 |
| 57 | Emakumezkoaren best.ko eta zehaztugabeko org. genit. batzuk | 0,0 | 0,0 | 0,6 | 0,4 | 2,3 | 1,3 |
| 58 | Karena | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| C64-C68 | GERNU-APARATUA | | | | | | |
| 64 | Giltzurruna | 6,2 | 4,2 | 9,9 | 6,4 | 7,8 | 5,5 |
| 65 | Giltzurrun-pelbisa | 0,0 | 0,0 | 1,2 | 0,6 | 0,5 | 0,2 |
| 66 | Ureterra | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 1,2 | 0,1 |
| 67 | Gernu-maskuria | 11,0 | 6,6 | 7,9 | 4,1 | 8,2 | 4,2 |
| 68 | Bestelako eta zehaztugabeko gernu-org. batzuk | 0,7 | 0,3 | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,2 |
| C69-C72 | BEGI, GARUN ETA NSZ-KO BESTE ZATI BATZUK | | | | | | |
| 69 | Begiak eta aldamenekoak | 0,7 | 0,4 | 0,6 | 0,3 | 1,2 | 0,8 |
| 70 | Meningeak | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,1 | 0,3 | 0,2 |
| 71 | Garuna | 8,3 | 5,5 | 7,6 | 5,5 | 7,0 | 5,3 |
| 72 | Bizkarrezur-muina, nerb. kranialak eta NSZ-eko beste zati batzuk | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,5 | 0,9 |
| C73-C75 | TIROIDEA ETA BESTE GURUIN ENDOKRINO BATZUK | | | | | | |
| 73 | Tiroide guruina | 8,9 | 8,6 | 10,5 | 9,8 | 7,5 | 6,7 |
| 74 | Giltzurrungaineko guruina | 0,0 | 0,0 | 0,3 | 0,1 | 0,3 | 0,3 |
| 75 | Bestelako guruin endokr. eta erlasionaturiko egiturak | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,2 | 0,1 |
| C76 | GAIZKI DEFINITUTAKO BESTE LEKU BATZUK | 0,7 | 0,3 | 0,9 | 0,6 | 1,2 | 0,6 |
| C77 | GONGOIL LINFATIKOAK | 11,7 | 8,3 | 9,3 | 6,5 | 8,9 | 6,3 |
| C80 | LEKU PRIMARIO EZEZAGUNA | 8,3 | 4,7 | 14,9 | 7,8 | 16,2 | 8,1 |
| C00-C80 | KOKAPEN GUZTIAK | 389,5 | 287,7 | 404,6 | 283,5 | 405,6 | 280,2 |

TG: Tasa gordina x 100.000 biztanle

EET: Europako biztanleriarekin estandarizatutako tasa x 100.000 biztanle

6. taula

KASUEN BANAKETA, TALDEKATUTAKO MOTA HISTOLOGIKOAREN ARABERA
EAE - 2003

| CIE-0 | | Kopurua | % |
|------------------|--|---------------|--------------|
| 800 | Neoplasiak, SAI | 1.273 | 12,0 |
| 801 - 804 | Neoplasia epitelialak, SAI | 572 | 5,4 |
| 805 - 808 | Zelula ezkatadunen neoplasiak | 1.160 | 11,0 |
| 812 - 813 | Zelula trantsizionalen papilomak eta kartzinomak | 564 | 5,3 |
| 814 - 838 | Adenomak eta adenokartzinomak | 4.194 | 39,7 |
| 839 - 849 | N. larruzaleko anexuak, mukoepidemoideak, kistikoak, muzinosoak eta se | 190 | 1,8 |
| 850 - 854 | Neoplasia duktalak eta lobularrak | 1.135 | 10,7 |
| 855 - 858 | Zelula azinodunen neoplasiak, epitelial konplexuak eta timokoak | 56 | 0,5 |
| 859 - 867 | Gonaden estromako neoplasiak | 2 | 0,0 |
| 868 - 871 | Neoplasia glomikoak | 3 | 0,0 |
| 872 - 879 | Neboak eta melanomak | 238 | 2,3 |
| 880 - 905 | Sarkomak eta ehun bigunen eta beste batzuen neoplasiak | 150 | 1,4 |
| 906 - 910 | Zelula germinal eta trofoblastikoaren neoplasiak | 58 | 0,5 |
| 912 - 916 | Odol-hodien tumoreak | 32 | 0,3 |
| 918 - 925 | Hezur-neoplasiak, kondromatosoak eta zelula handienak | 1 | 0,0 |
| 935 - 937 | Beste tumore batzuk | 5 | 0,0 |
| 938 - 948 | Gliomak | 138 | 1,3 |
| 949 - 952 | Neoplasia neuroepiteliomatosoak | 7 | 0,1 |
| 954 - 957 | Nerbio-zorroen tumoreak | 2 | 0,0 |
| 959 - 972 | Hodgkin-en linfomak eta Hodgkin-enak ez direnak | 384 | 3,6 |
| 973 - 976 | Zelula plasmatico eta immunoproliferatiboen tumoreak | 120 | 1,1 |
| 980 - 994 | Leuzemiak | 154 | 1,5 |
| 995 - 996 | Trastorno mieloproliferatibo kronikoak | 44 | 0,4 |
| 997 - 998 | Bestelako trastorno hematologikoak & sdr. mielodisplasikoak | 84 | 0,8 |
| 800 - 994 | GUZTIRA | 10.566 | 100,0 |

7. taula
TUMORE GAIZTO ESPEZIFIKOEK ERAGINDAKO INTZIDENTZIAREN DENBORAZKO EBOLUZIOA
EAE 1994-2003

| CIE-O | | Emakumeak | | | Gizonak | | | Bi sexuak | | |
|---------|-------------------------------------|------------|------------|-------------------------|------------|------------|-------------------------|------------|------------|-------------------------|
| | | Tasa* 1994 | Tasa* 2003 | Aldaketa % 1994-2003 | Tasa* 1994 | Tasa* 2003 | Aldaketa % 1994-2003 | Tasa* 1994 | Tasa* 2003 | Aldaketa % 1994-2003 |
| C00-C14 | Ezpaina, aho-b. eta faringea | 4,4 | 3,8 | -0,61 | 33,8 | 28,0 | -2,04** | 18,3 | 15,3 | -1,71 |
| C16 | Urdaila | 13,5 | 11,0 | -2,59** | 34,3 | 26,4 | -2,25** | 22,6 | 17,9 | -2,27** |
| C18-C21 | Kolon-ondeste-uzkia | 28,3 | 34,7 | 1,81** | 63,8 | 70,4 | 2,14** | 43,4 | 50,4 | 2,13** |
| C32 | Laringea | 0,4 | 1,0 | 2,15 | 28,6 | 20,5 | -3,02** | 13,6 | 10,4 | -2,65** |
| C34 | Birika | 7,2 | 12,5 | 4,58** | 85,6 | 75,9 | -0,71 | 42,3 | 40,9 | 0,18 |
| C42 | Leuzemiak | 7,4 | 6,8 | -1,33 | 11,0 | 10,8 | -0,85 | 9,1 | 8,6 | -1,00 |
| C44 | Melanomak | 2,8 | 5,0 | 5,54** | 3,1 | 4,7 | 5,61** | 2,8 | 4,8 | 5,59** |
| C50 | Bularra | 79,9 | 87,7 | 0,27 | | | | | | |
| C53 | Umetoki-lepoa | 7,8 | 7,3 | -2,08 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | | |
| C54 | Umetoki-gorputza | 14,5 | 17,6 | 1,56 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | | |
| C56 | Obulutegia | 12,8 | 8,9 | -2,00 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | | | |
| C61 | Prostata | | | | 49,7 | 106,3 | 10,47** | | | |
| C67 | Maskuria | 4,9 | 4,5 | 1,89 | 34,7 | 37,2 | 1,23 | 17,7 | 19,0 | 1,58** |
| C77 | Linfomak | 6,7 | 10,0 | 5,31** | 9,2 | 15,3 | 4,09** | 7,8 | 12,5 | 4,63** |


* x 100.000 biztanleko, Europako biztanleria estandarri adinaren arabera doitu.

** Estatistikoki esanguratsua den aldea.


Iturria: Minbizi Erregistroa. Osasun Plangintza eta Antolamenduko Zuzendaritza. Osasun Saila.

IRUDI AK

1. irudia. INTZIDENTZIA-TASA ESPEZIFIKOA, ADIN-TALDEA ETA SEXUA KONTUAN HARTUTA. KOKAPEN GUZTIAK. EAE 2003.




2. irudia. INTZIDENTZIA-TASAK*, SEXUA ETA LURRALDE HISTORIKOA KONTUAN HARTUTA. EAE 2003.




* Europako biztanleriarekin doituta / 100.000 biztanle

3. irudia. TUMORE-HEDAPENA, SEXUA KONTUAN HARTUTA. EAE 2003.

GIZONEZKOAK




EMAKUMEZKOAK



IN SITU KOKATUA ESKUALDEKOA SAKABANATUA EZEZAGUNA

4. irudia. INTZIDENTZIA-TASEN EBOLUZIOA EZPAIN, AHO-BARRUNBE ETA LARINGEAN. EAE 2003.


Tasak*



* Europako biztanleriarekin doituta / 100.000 biztanle

5. irudia. INTZIDENTZIA-TASEN EBOLUZIOA DIGESTIO-APARATUAN. EAE 2003.


Tasak*



* Europako biztanleriarekin doituta / 100.000 biztanle

6. irudia. INTZIDENTZIA-TASEN EBOLUZIOA BIRIKETAN ETA EMAKUMEZKOAREN BULARREAN. EAE 2003.


Tasak*



* Europako biztanleriarekin doituta / 100.000 biztanle

7. irudia. INTZIDENTZIA-TASEN EBOLUZIOA EMAKUMEZKOAREN APARATU GENITALEAN. EAE 2003.


Tasak*



* Europako biztanleriarekin doituta / 100.000 biztanle

8. irudia. INTZIDENTZIA-TASEN EBOLUZIOA PROSTATA ETA MASKURIAN. EAE 2003.


Tasak*



* Europako biztanleriarekin doituta / 100.000 biztanle

9. irudia. LEUZEMIA ETA LINFOMEN INTZIDENTZIA-TASEN EBOLUZIOA. EAE 2003.


Tasak*



* Europako biztanleriarekin doituta / 100.000 biztanle

10. irudia. LARRUAZALEKO MELANOMAREN INTZIDENTZIA-TASEN EBOLUZIOA. EAE 2003.

Tasak*



* Europako biztanleriarekin doituta / 100.000 biztanle